


# KANALAK

Atal honetan, gure app-aren funtzionamenduari dagokion kanalak jorratuko ditugu. Atal hau, gure app-aren sorrerarako esanguratsua da, gure proiektua merkatu-segmentuetara iritsi dadin, gure helburua jakinarazteko. Hemen bi atal bananduko ditugu, batetik, komunikaziorako ezinbestekoak diren kanalak. Bestetik, salmentarako beharko ditugunak.

Lehenik eta behin, komunikazioari dagokionez, bezeroarekin edo beste enprekin harremanetan jartzeko erabiliko dugun baliabide garrantzitsuena e-maila izango da, eguneko edozein unetan gurekin harremanetan jartzeko eraginkorrena izango delako, eta erantzunak 2 eguneko epe baten barruan erantzungo ditugula hitzematzen dugu. Horrez gain, zalantza gehiago dituztenentzat, baina idatziz adieraztea zaila egiten zailenentzat, telefono-zerbitzu bat ere eskaintzen dugu, non langile batek erantzungo dituen bezeroak dituen zalantzak. Dena den, telefono-zerbitzua goizeko 8etatik 12etara egongo da erabilgarri. Azkenik, azken komunikazio mota automatikoago bat izango dugu, egindako bidaiaren amaieran aplikazioan bertan, eskaintako zerbitzua baloratzeko, izarren bidez egiteko aukera ematen da, 0 izar esperientzia txarra; aldiz, 5 izar esperientzia bikaina. Bide batez, bidaiaren edukitako arazoak guri jakinarazi ez ezik, aplikaziorako aldaketak eta proposamenak ere egin ditzakete.



Bestalde, salmenta kanalez hitz egiten badugu, aplikazio bat denez, salmenta digitaleko plataformak erabiliko ditugu. Gailu elektroniko ohikoena mugikorra denez, noski, app store eta play storen egongo da eskuragai gure aplikazioa. Dena den, ez dugu nahi gure aplikazioa gailu horretara bakarrik mugatu nahi, horregatik etorkizun batean beste plataforma batzuetara zabaltzen saiatuko gara.



Atal honi amaiera emateko, konturatu gara enpresa berriak bere enpresa jendearen ahoetara iristeko publizitatea funtsezkoa dela. Haien urratsak jarraituz gure proiektua EAEko biztanleei iristeko, egungo sare sozial famatuenetan iragarkiak jarriko ditugu, Tik Tok, Youtube eta Instagram.